

GIPUZKOAKO BIZTANLERIAREN  
JOKABIDEEN AZTERKETA HONDAKINAK  
INGURUMENERA BOTATZEARI  
DAGOKIONEZ



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ingurumeneko eta Obra  
Hidraulikoetako Departamentua

Siadeco<sup>x</sup>  
ikerketa aplikatua

Berio pasealekua 11, 20018 Donostia

943 31 00 34

[siadeco@siadeco.eus](mailto:siadeco@siadeco.eus)



## Aurkibidea

|   |  |
|---|--|
| 0 | <p>PLANTEAMENDUA ETA ALDERDI METODOLOGIKOAK..... 4</p> <p>    0.1. Planteamendua ..... 5</p> <p>    0.2. Alderdi metodologikoak ..... 6</p>  |
| 1 | <p>ZABOR SAKABANATUA: IKUSKERA, KEZKA ETA ARAZOAK ..... 9</p> <p>    1.1. Zabor sakabanatuaren inguruko lotura<br/>        kontzeptualak ..... 10</p> <p>    1.2. Zabor sakabanatuek eta plastikoek eragindako<br/>        kutsadurarekiko ardura-maila ..... 13</p> <p>    1.3. Zabor sakabanatuek eta plastikoek sortzen duten<br/>        arazo nagusia ..... 14</p>  |
| 2 | <p>HONDAKINEN BILTEGIRATZE DESEGOKIA..... 16</p> <p>    2.1. Zaborren biltegiratze desegokiaren larritasunari<br/>        buruzko balorazio pertsonala eta bizilagunena ..... 17</p> <p>    2.2. Zabor-biltegiratze desegokian eragina duten<br/>        faktoreen balorazio pertsonala eta bizilagunena ..... 21</p>  |
| 3 | <p>ZABOR ETA PLASTIKO SAKABANATUEK ERAGINDAKO KUTSADURA..... 32</p> <p>    3.1. Zabor eta plastiko sakabanatuek eragindako<br/>        kutsaduraren ondorio desberdinen larritasuna ..... 33</p> <p>    3.2. Zabor eta plastiko sakabanatuen kutsadurari<br/>        aurre egiterakoan eragile desberdinek duten<br/>        erantzukizuna ..... 38</p> <p>    3.3. Plastikoaren erabilera murrizteko edo kontrolik<br/>        gabeko isurketa saihesteko neurrien garrantzia ..... 40</p> <p>    3.4. Zabor eta plastiko sakabanatuek etorkizunean<br/>        eragingo dituzten ondorio edo inpaktuen<br/>        garrantzia Gipuzkoako ingurumenean ..... 46</p> |

|   |   |
|---|---|
| 4 | ZABORREN ETA PLASTIKOEN KUTSADURA MURRIZTEKO<br>NEURRI PERTSONALAK..... 49  |
|   | 4.1. Plastikoen kontsumoa murrizteko neurriren<br>bat hartzea ..... 50  |
|   | 4.2. Gaur egun eta etorkizunean zaborren eta plastiko<br>sakabanatuen kutsadura murrizteko ekintzak aurrera<br>eramatea..... 51 |
|   | 4.3. Zergatik ez den gehiago laguntzen zaborraren<br>biltegitatze desegokiaren arazoa murrizten..... 57                         |
| 5 | INFORMAZIOA ETA SENSIBILIZAZIOA ..... 65  |
|   | 5.1. Herritarrak informatu beharra, hondakinak behar<br>bezala bildu ditzaten ..... 66  |
|   | 5.2. Herritarrak informatzeko eta sensibilizatzeko<br>komunikazio-kanal ezberdinen eraginkortasuna..... 68                      |
| 6 | KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIAK ..... 75  |
|   | 6.1. Testuinguru komunikatiboa ..... 76   |
|   | 6.2. Sinesgarritasun euskarria..... 77  |
|   | 6.3. Posizionamendua ..... 78   |
|   | 6.4. Helburuak ..... 79   |
|   | 6.5. Publikoak ..... 80   |
|   | 6.6. Sormen- eta komunikabide-estrategia ..... 81   |
| 7 | ONDORIOAK..... 82   |

0

## PLANTEAMENDUA ETA ALDERDI METODOLOGIKOAK

## 0.1 Planteamendua

Siadecok egin du honako azterketa hau, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak eskatuta. Proiektuaren xede orokorra proiektuaren bost dimentsio analitikoetan banakatu daiteke. Dimentsio analitiko horiek aurrerago garatuko ditugu; nolahi ere, ondorengo arloekin lotuta daude:

- Gipuzkoako biztanleriaren ikuskera, kezka eta arazoak, zabor sakabanatuen inguruan.
- Zabor-biltegiatze desegokiari aitortzen zaion larritasun-maila, portaera horretan eragiten duten faktoreak eta arazo hori murrizten ez laguntzeko egon daitezkeen arrazoiak.
- Zabor sakabanatuek eragindako kutsadura, eta haren inguruan: haren ondorioen larritasuna, eragile ezberdinek gai horren aurrean duten erantzukizuna, plastikoen erabilera murrizteko eta kontrolik gabeko isurketa saihesteko neurri ezberdinen garrantzia, eta kutsadura horrek etorkizunean Gipuzkoako ingurumenean izango duen eraginari ematen zaion garrantzia.
- Zaborren eta plastiko sakabanatuen kutsadura murrizteko hartu diren edo etorkizunean hartu nahi diren neurri pertsonalak
- Hondakinak modu egokian biltegiatzeko herritarrak informatu eta sensibilizatzeko beharra, eta horretarako erabiltzen diren komunikazio-kanal ezberdinen eraginkortasuna.

## 0.2 Alderdi metodologikoak

Zeharkako informazioaren edo informazio dokumentalaren bilketaz eta azterketaz gainera, telefono bidezko inkestatze-prozesu bat ere egin da, 16 urte eta gehiagoko Gipuzkoako biztanleriaren lagin adierazgarri batekin, galdetegi egituratu bat erabiliz.

Inkestatze-prozesuaren fitxa teknikoa:

**Ikergai izan den unibertsoa:** Gipuzkoako 16 urteko eta gehiagoko biztanleria, 611.578 lagun (*Iturria: Eustat: Biztanleriaren Udak Estatistika, 2020ko urtarrilaren 1ean*).

**Laginaren tamaina:** 600 inkesta egin dira, galdetegi egituratu bat erabiliz.

**Galdetegia:** Lagin-unitateei egindako elkarrizketak galde-sorta baten bitartez egin dira. Galde-sorta horrek bi atal izan ditu: karakterizazio soziodemografikoko gaiekin lotutako bat eta Gipuzkoako biztanleek zaborrak ingurumenera isurtzeari buruz dituzten iritzi-, motibazio- eta portaerei buruzko azterlanari dagokiona, bestea.

**Laginketa mota:** "probabilistiko-ausazkoa", estratifikatua (definitutako eremuetan bizi diren biztanleen erro karratuarekiko proportzioan finkatua) eta etapa anitzekoa:

- 1.Etapa: udalerriaren hautaketa
2. Etapa: etxebizitza-bizitokien hautaketa
- 3.Etapa: inkestatu beharreko pertsonak hautatzea, sexuaren, adin-mailaren eta jarduera-egoeraren arabera kuota-sistema aplikatuz

**Laginaren banaketa espaziala, adierazgarritasuna eta akats-tarte estatistikoa:** Laginaren banaketa espaziala "laginaren eraginkortasuna" optimizatzea ahalbidetzen duten irizpideetan oinarrituta diseinatu da; beraz, banaketa espazialak zehazten diren eremu geografikoen arabera datuen adierazgarritasuna optimizatzea bilatu du.

Datuen akats-tarte estatistiko orokorra  $\pm 4,08\%$ koa da,  $95,5\%$ eko konfiantza-mailarako (ausazko laginketa sinple batekin, non  $p = q = 0,5$  den). Jarraian, aztergai dugun unibertsoaren banaketa azalduko dugu, bai eta lagin-banaketa ere, eskualde-eremuen arabera. Akats-tarte estatistiko orokorra eta zona-geruzarena ere zehazten dira.

Unibertsoa, laginaren banaketa espaziala eta akats-tarteak

| Eskualdearen arabera gune geografikoak | Unibertsoa (16 urte eta gehiagoko biztanleria) | Laginaren banaketa: esleipen ez proportzionala <sup>1</sup> |                  |
|--|--|---|------------------|
|  |  | Inkesta kop.  | Akats-tartea (%) |
| Bidasoa Beherea                        | 65.817   | 90  | ±10,53           |
| Deba Beherea + Debagoiena              | 100.801  | 120   | ±9,12            |
| Donostialdea                           | 282.988  | 190   | ±7,25            |
| Goierri + Tolosaldea                   | 98.405   | 110   | ±9,53            |
| Urola-Kostaldea                        | 63.567   | 90  | ±10,53           |
| <b>Guztira</b>                         | <b>611.578</b>                                 | <b>600</b>  | <b>±4,08</b>     |

Iturria: EUSTAT. Iturria: EUSTAT. Biztanleen Udal Erroldaren Estatistika

**Haztapena:** laginak "diseinu interesatua" duenez, ez da Gipuzkoako 16 urte eta gehiagoko biztanleriak planteatutako zona-eskualdeen arabera duen banaketarekiko proportzionala. Hori dela eta, datu orokorrak emateko, datuak haztatu egin dira.

Zona-eskualdearen arabera erabili ditugun indize haztatzaileak (aldagai hori aukeratu da laginketa interesatu bat egiteko) ondorengo taulan agertzen direnak dira:

| Gune geografikoak            | Indizea          |
|------------------------------|------------------|
| Bidasoa Beherea              | 0,71745550036136 |
| Deba Beherea + Debagoiena    | 0,82410583768546 |
| Donostialdea                 | 1,46121396745709 |
| Goierri + Tolosaldea         | 0,87765509134492 |
| Urola-Kostaldea <sup>2</sup> | 0,69292878422703 |

**Datuen ustiaketa estatistikoa:** estatistika deskriptiboan oinarritutako ikerketa izan da honakoa (frekuentzia absolutuak, erlatiboak eta aldagaien arteko gurutzaketa esanguratsuak). Horretarako SPSS pakete estatistikoa erabili da. Txostenean zehar, galdetegiko aldagaien gurutzaketa-taulak aurkezten dira, honako karakterizazio-aldagaiekin: sexua, adina, habitata, bizitoki-eskualdea. Horietan, batez besteko orokorrak gairitzen dituzten ehunekoak nabarmentzen dira.

**Hizkuntza:** galdetegiak betetzeko elkarrizketak euskaraz edo gaztelaniaz egin dira, informazioa eman duen pertsonak aukeratu duen hizkuntzaren arabera.

**Landa-lana burutu den epea:** 2021eko otsailak 1 eta martxoak 9 artean aurrera eraman zen biztanleriaren lagina inkestatzeko prozesua.

**Zuzendaritza eta bermeak:** Siadecok lortutako zuzeneko informazioaren baliozkotasun eta fidagarritasun-maila bermatzen ditu, betiere landutako diseinu metodologikoaren ezaugarrien arabera.

<sup>1</sup> Esan dugun bezala, eremu bakoitzeko biztanleriaren erro karratuari dagokion proportzioaren arabera banatzen da lagina.

<sup>2</sup> Urola-Kostaldea eskualdeak, ondoko hiru azpieskualdeak hartzen ditu bere baitan: Urola Garaia, Urola Erdia eta Urola Kosta.

**Laginaren ezaugarri soziodemografikoak:** inkestatutako pertsonen ezaugarri soziodemografikoei dagokienez, honako hau izango genuke:

**1. Taula:** Laginaren ezaugarri soziodemografikoak.

|                         | Haztatu gabeko datuak |       | Haztatutako datuak |       |   |
|-------------------------|-----------------------|-------|--------------------|-------|---|
|                         | Abs.                  | %     | Abs.               | %     |   |
| SEXUA                   | 300                   | 50,0  | 300                | 50,0  | Emakumezkoa   |
|                         | 300                   | 50,0  | 300                | 50,0  | Gizonezkoa  |
| ADINA                   | 102                   | 17,0  | 102                | 17,1  | 16-30 urte  |
|                         | 198                   | 33,0  | 198                | 33,3  | 31-50 urte  |
|                         | 150                   | 25,0  | 150                | 24,7  | 51-65 urte  |
|                         | 150                   | 25,0  | 150                | 24,9  | >65 urte  |
| HABITATA                | 49                    | 8,2   | 49                 | 6,8   | < 10.000 biztanle   |
|                         | 137                   | 22,8  | 137                | 21,1  | 10.000-25.000 biztanle  |
|                         | 414                   | 69,0  | 414                | 72,1  | >25.000 biztanle  |
| BIZITOKI<br>ESKUALDEA   | 90                    | 15,0  | 90                 | 10,8  | Bidasoa Beherea   |
|                         | 120                   | 20,0  | 120                | 16,5  | Deba Beherea-Debagoiena   |
|                         | 190                   | 31,7  | 190                | 46,3  | Donostialdea  |
|                         | 110                   | 18,3  | 110                | 16,1  | Goierri-Tolosaldea  |
|                         | 90                    | 15,0  | 90                 | 10,4  | Urola-Kostaldea   |
| BUKATUTAKO<br>IKASKETAK | 17                    | 2,8   | 17                 | 3,0   | Batere ez edo oinarrizkoak ere ez                               |
|                         | 140                   | 23,3  | 140                | 22,4  | Oinarrizkoak: LH, DBH, Oinarrizko Batxilergoa                   |
|                         | 63                    | 10,5  | 63                 | 10,3  | Bigarren Mailakoak: BUP, COU, goi mailako Batxilergoa           |
|                         | 173                   | 28,8  | 173                | 27,5  | Lanbide Heziketa  |
|                         | 203                   | 33,8  | 203                | 36,1  | Unibertsitate-ikasketak (graduak, lizentziaturak, diplomaturak) |
|                         | 4                     | 0,7   | 4                  | 0,8   | Ed/Ee   |
| JARDUERA<br>NAGUSIA     | 312                   | 52,0  | 312                | 52,8  | Ordainpeko lana   |
|                         | 37                    | 6,2   | 37                 | 6,0   | Langabezia  |
|                         | 44                    | 7,3   | 44                 | 6,9   | Ikaslea, nagusiki   |
|                         | 28                    | 4,7   | 28                 | 4,5   | Etxeko lanak  |
|                         | 177                   | 29,5  | 177                | 29,5  | Erretiratua, pentsioduna, ezindua                               |
|                         | 2                     | 0,4   | 2                  | 0,3   | Bestelako egoerak   |
| GUZTIRA                 | 600                   | 100,0 | 600                | 100,0 | GUZTIRA   |

Iturria: Siadeco, 2020



1

ZABOR SAKABANATUA:  
IKUSKERA, KEZKA ETA ARAZOAK

## 1.1 Zabor sakabanatuaren inguruko lotura kontzeptualak

Gipuzkoako 16 urte eta gehiagoko biztanleen %30i, ingurune naturalera botatako zabor sakabanatuaz hitz egiterakoan, burura datorkien lehenengo gaia herritarren utzikeria da.

%17,5i gehiegizko kontsumoa datorkie burura, edo kapitalismoa.

%14,5i ibaien eta itsasoen kutsadura.

%14,3ri birziklatzeko beharra.

%10,3ri plastikoak.

%5,9ri isunak jartzeko beharra, eta

%6,7ri burura datorkiena nahasketa bat da, aurrez azaldu diren gaien eta ingurumenaren zainketari buruzko formazio eta sentsibilizazio beharraren artekoa.


Egiaztatu ahal izan dugunez, biztanleriaren zati handi batek zabor sakabanatuaren arazoa herritarren jokabide desegokiarekin —“utzikeriagatik sortzen da”—, bizi garen gehiegizko kontsumo-sistemarekin —kapitalista— eta birziklatzeko beharrarekin lotzen du.

Alderdi horiek guztiak norberaren portaera indibidualarekin eta sozialarekin zerikusia duten gaiei dagozkie.

Neurri txikiagoan, baina aipatzeko moduko garrantziarekin, zabor sakabanatua ibaien eta itsasoen kutsadurarekin eta plastikoekin lotzen da; hau da, haren ondorio edo efektuetako batzuekin.

Bestalde, biztanleriaren parte txiki bat da sakabanatutako zaborra isunak jarri beharrarekin lotzen duena.

1. **Grafikoa.** Honako alderdi hauetatik zein da burura datorkizun lehena ingurumenean sakabanatutako eta botatako hondakinei buruz hitz egiten denean? (%)



Iturria: Siadeco, 2021

**2. Taula:** Honako alderdi hauetatik zein da burura datorkizun lehena ingurumenean sakabanatutako eta botatako hondakinei buruz hitz egiten denean?, sexuaren, adinaren, habitat-aren eta bizileku-eskualdearen arabera (%)

|                                    | SEXUA       |            | ADINA      |            |            |           | HABITAT-A      |                     |               | ESKUALDEA       |                             |              |                    |                 | Guztira |
|------------------------------------|-------------|------------|------------|------------|------------|-----------|----------------|---------------------|---------------|-----------------|-----------------------------|--------------|--------------------|-----------------|---------|
|                                    | Emakumezkoa | Gizonezkoa | 16-30 urte | 31-50 urte | 51-65 urte | > 65 urte | < 10.000 bizt. | 10.000-25.000 bizt. | >25.000 bizt. | Bidasoa Beherea | Deba Beherea/<br>Debagoiena | Donostialdea | Goierrri/Tolosalde | Urola Kostaldea |         |
| Ibaien eta itsasoan kutsadura      | 14,3        | 14,7       | 21,8       | 12,8       | 13,3       | 13,0      | 16,6           | 9,4                 | 15,8          | 21,1            | 14,2                        | 12,6         | 17,3               | 12,2            | 14,5    |
| Plastikoak                         | 10,1        | 10,5       | 12,6       | 10,3       | 9,0        | 9,9       | 12,8           | 15,7                | 8,5           | 5,6             | 8,3                         | 11,1         | 12,7               | 11,1            | 10,3    |
| Biztanleriaren utzikeria           | 29,4        | 31,2       | 17,5       | 31,4       | 28,6       | 39,2      | 23,9           | 29,0                | 31,3          | 30,0            | 30,8                        | 33,7         | 21,8               | 27,8            | 30,3    |
| Gehiegizko kontsumoa, kapitalismoa | 19,5        | 15,5       | 29,9       | 24,2       | 14,4       | 3,0       | 14,3           | 19,3                | 17,2          | 10,0            | 20,8                        | 19,5         | 14,5               | 15,6            | 17,5    |
| Birziklatzeko beharra              | 13,9        | 14,7       | 12,0       | 9,0        | 19,4       | 17,8      | 20,0           | 12,0                | 14,4          | 20,0            | 13,3                        | 11,1         | 16,4               | 21,1            | 14,3    |
| Isunak jartzeko beharra            | 5,6         | 6,1        | 3,0        | 5,0        | 6,2        | 8,7       | 4,2            | 5,8                 | 6,0           | 4,4             | 6,7                         | 5,8          | 6,4                | 5,6             | 5,9     |
| Besterik                           | 7,0         | 6,3        | 3,2        | 5,7        | 8,6        | 8,4       | 8,2            | 6,5                 | 6,6           | 7,8             | 4,2                         | 5,8          | 10,9               | 6,7             | 6,7     |
| Ed/Ee                              | 0,3         | 1,0        | 0,0        | 1,6        | 0,5        | 0,0       | 0,0            | 2,5                 | 0,2           | 1,1             | 1,7                         | 0,5          | 0,0                | 0,0             | 0,6     |
| Guztira                            | 100,0       | 100,0      | 100,0      | 100,0      | 100,0      | 100,0     | 100,0          | 100,0               | 100,0         | 100,0           | 100,0                       | 100,0        | 100,0              | 100,0           | 100,0   |


Iturria: Siadeco 2021

## 1.2 Zabor sakabanatuek eta plastikoen eragindako kutsadurarekiko ardura-maila

Zabor sakabanatuen eta plastikoen ondorioz ingurumena kutsatzeko kezka handi bat dagoela antzematen da: Gipuzkoako 16 urte eta gehiagoko herritarren %48,6k adierazi dute oso kezkatuta daudela, eta %46,9k nahiko kezkatuta daudela gai horrekin.

Biztanleriaren %4,5i soilik eragiten dio kezka gutxi (%4,1) edo batere ez (%0,4).

**2. Grafikoa.** Zein neurritan zaude kezkatuta hondakin sakabanatuek (botata utzitakoek) ingurumenean sortutako kutsadurarekin (plastikoen nagusiki)? (%)



Iturria: Siadeco, 2021.

**3. Taula:** Zein neurritan zaude kezkatuta hondakin sakabanatuek (botata utzitakoek) ingurumenean sortutako kutsadurarekin (plastikoen nagusiki)? sexuaren, adinaren, habitataren eta bizileku-eremuaren arabera (%)

|                              | SEXUA       |            | ADINA      |            |            |           | HABITAT-A      |                     |               | ESKUALDEA       |                          |              |                  |                 | Guztira |
|------------------------------|-------------|------------|------------|------------|------------|-----------|----------------|---------------------|---------------|-----------------|--------------------------|--------------|------------------|-----------------|---------|
|                              | Emakumezkoa | Gizonezkoa | 16-30 urte | 31-50 urte | 51-65 urte | > 65 urte | < 10.000 bizt. | 10.000-25.000 bizt. | >25.000 bizt. | Bidasoa Beherea | Deba Beherea/ Debagoiena | Donostialdea | Gorri/Tolosaldea | Urola Kostaldea |         |
| Oso kezkatuta                | 49,7        | 47,5       | 41,6       | 48,7       | 53,4       | 48,6      | 49,6           | 50,4                | 48,0          | 48,9            | 52,5                     | 45,8         | 54,5             | 45,6            | 48,6    |
| Nahiko kezkatuta             | 46,6        | 47,2       | 55,9       | 44,9       | 45,0       | 45,3      | 44,4           | 41,5                | 48,7          | 47,8            | 40,8                     | 49,5         | 40,9             | 53,3            | 46,9    |
| Ez oso kezkatuta (edo gutxi) | 3,5         | 4,8        | 2,5        | 5,7        | 1,6        | 5,6       | 4,3            | 7,0                 | 3,3           | 3,3             | 6,7                      | 4,2          | 4,5              | 0,0             | 4,1     |
| Batere ez kezkatuta          | 0,2         | 0,5        | 0,0        | 0,7        | 0,0        | 0,5       | 1,7            | 1,2                 | 0,0           | 0,0             | 0,0                      | 0,5          | 0,0              | 1,1             | 0,4     |
| Ed/Ee                        | 0,0         | 0,0        | 0,0        | 0,0        | 0,0        | 0,0       | 0,0            | 0,0                 | 0,0           | 0,0             | 0,0                      | 0,0          | 0,0              | 0,0             | 0,0     |
| Guztira                      | 100,0       | 100,0      | 100,0      | 100,0      | 100,0      | 100,0     | 100,0          | 100,0               | 100,0         | 100,0           | 100,0                    | 100,0        | 100,0            | 100,0           | 100,0   |

### 1.3 Zabor sakabanatuek eta plastikoek sortzen duten arazo nagusia

Nabarmentzekoa da Gipuzkoako 16 urte eta gehiagoko biztanleen erdiek baino gehiagok (%57) uste dutela euren bizitokiaren inguruan botatzen diren zaborrek eta plastikoek sortzen duten arazo nagusia ingurumena kutsatzea dela (ibaiak, itsasoak...).

%13,4k uste dute arazo nagusia ikusizko inpaktu edo inpaktu bisual negatiboa dela.


% 6,7k arratoiak, parasitoak, zomorroak, euliak etab. ugaltzea.

%5ek usain txarrak.

%4,7k euria egiten duenean estoldak tratatzea,%3,7k infekzio guneak sortzea (bakterioen kutsaduragatik). Eta biztanleriaren %8k beste gai batzuk ere aipatzen ditu, kasu gehienetan aipatutakoen arteko nahasketa bat direnak.

Aurreko datuek agerian uzten dute herritarren artean nahiko barneratuta dagoela zabor sakabanatuaren arazo nagusia ingurumena kutsatzea dela (batez ere ibaiak eta itsasoak).

#### 3. Grafikoa. Zein da bizi zaren ingurunean isuritako/botatako hondakin eta plastiko sakabanatuek sortzen duten arazo nagusia ? (%)



Iturria: Siadeco, 2021.

**4 Taula:** Zein da bizi zaren ingurunean isuritako/botatako hondakin eta plastiko sakabanatuek sortzen duten arazo nagusia?, sexuaren, adinaren, habitat-aren eta bizileku-eskualdearen arabera (%)

|   | SEXUA       |            | ADINA      |            |            |           | HABITAT-A      |                     |               | ESKUALDEA       |                             |              |                     |                 | Guztira |
|---|-------------|------------|------------|------------|------------|-----------|----------------|---------------------|---------------|-----------------|-----------------------------|--------------|---------------------|-----------------|---------|
|   | Emakumezkoa | Gizonezkoa | 16-30 urte | 31-50 urte | 51-65 urte | > 65 urte | < 10.000 bizt. | 10.000-25.000 bizt. | >25.000 bizt. | Bidasoa Beherea | Deba Beherea/<br>Debagolena | Donostialdea | Goiherri/Tolosaldea | Urola Kostaldea |         |
| Eragin bisual negatiboa                                     | 11,9        | 14,8       | 7,7        | 14,4       | 13,9       | 15,3      | 28,7           | 11,5                | 12,5          | 10,0            | 12,5                        | 14,7         | 15,5                | 8,9             | 13,4    |
| Usain txarrak   | 5,2         | 4,7        | 8,1        | 5,2        | 1,1        | 6,5       | 1,7            | 3,1                 | 5,8           | 3,3             | 5,8                         | 6,8          | 0,9                 | 3,3             | 5,0     |
| Ingurumenaren kutsadura (ibaiak, itsasoak...)               | 55,3        | 59,3       | 72,0       | 59,9       | 60,0       | 41,2      | 47,1           | 54,4                | 59,1          | 64,4            | 56,7                        | 57,9         | 49,1                | 61,1            | 57,3    |
| Infekzio-fokuak sortzea (bakterien kutsaduragatik)          | 3,7         | 3,7        | 1,4        | 1,5        | 5,1        | 6,9       | 1,7            | 3,0                 | 4,1           | 3,3             | 3,3                         | 4,7          | 0,9                 | 4,4             | 3,7     |
| Euria egiten duenean estoldak buxatzea edo oztopoz betetzea | 7,1         | 2,2        | 4,4        | 3,5        | 6,7        | 4,6       | 2,2            | 2,5                 | 5,6           | 1,1             | 4,2                         | 6,3          | 4,5                 | 2,2             | 4,7     |
| Arratoiden, bizkarroien, zomorroen eta eulien ugalketa      | 7,5         | 5,8        | 2,4        | 4,3        | 5,7        | 13,6      | 6,3            | 10,3                | 5,6           | 5,6             | 5,8                         | 5,3          | 10,9                | 8,9             | 6,7     |
| Besterik  | 8,4         | 7,6        | 3,2        | 10,0       | 6,5        | 10,0      | 12,3           | 14,4                | 5,7           | 11,1            | 7,5                         | 4,2          | 18,2                | 6,7             | 8,0     |
| Ed/Ee   | 0,7         | 1,8        | 0,8        | 1,2        | 1,0        | 1,9       | 0,0            | 0,7                 | 1,6           | 1,1             | 4,2                         | 0,0          | 0,0                 | 4,4             | 1,3     |
| Guztira   | 100,0       | 100,0      | 100,0      | 100,0      | 100,0      | 100,0     | 100,0          | 100,0               | 100,0         | 100,0           | 100,0                       | 100,0        | 100,0               | 100,0           | 100,0   |

Iturria: Siadeco 2021

2

## HONDAKINEN BILTEGIRATZE DESEGOKIA




## 2.1 Zaborren biltegitratze desegokiaren larritasunari buruzko balorazio pertsonala eta bizilagunena

Gipuzkoako 16 urte eta gehiagoko biztanleen %70,1ek oso larritzat jotzen dute zaborrak zuzenean lurrean uztea, edukiontzietatik, zakarrontzietatik edo horretarako berariaz prestatutako eremuetatik kanpo (espaloian, eremu publikoan, etab.). %26,3k nahiko larritzat jotzen dute. Eta %3,5ek uste dute ez dela oso larria edo ez dela batere larria. Horrenbestez, arazo horren larritasun-maila handia dela hautematen da.

Badago aldea datu horien eta euren auzotarrek gai honi aitortzen dioten larritasun-mailaz herritarrek duten iritzia artean. Izan ere, herritarren %29,7k bakarrik uste dute bizilagunek oso larritzat jotzen dutela zaborrak lurrean uztea, horretarako prestatutako tokietatik kanpo. %34k uste dute nahiko larria iruditzen zaiela bizilagunei. Eta %19,7k adierazi dute bizilagunek gutxi (%17) edo batere ez (%2,7) larritzat jotzen dutela gai hori. Hala ere, azpimarratu behar da biztanleen %16,6k ez duela erantzun bizilagunek aitortzen dioten larritasun-mailaren inguruan (ez dakite edo ez dute erantzun).

Aldea nabarmena da, beraz, zaborra modu desegokian biltegitratzeari buruz norberak agertzen duen larritasun-maila pertsonal handiaren eta bizilagunek aitortzen dioten larritasun-mailari buruz pentsatzen denaren artean. Neurri batean, badirudi "besteenganako proiektio" bat dagoela, arazoaren larritasunari buruzko sentsibilizazioari dagokionez. Balorazioan dagoen diferentzia horren atzean honako planteamendu bat egon liteke: "Besteak dira, nire bizilagunak, arazoa hain larritzat hartzen ez dutenak, eta horregatik ematen dira, neurri handiagoan, horrelako jokabide desegokiak".

**4. Grafikoa.** Zer neurritan iruditzen zaizu larria zaborrak zuzenean lurrean uztea, edukiontzietatik, paperontzietatik edo egokitutako guneetatik kanpo (espaloian, bide publikoan, etab.)? Eta, zure ustez, zein neurritan iruditzen zaie larria zure bizilagunei? (%)



Iturria: Siadeco 2021

**5. Taula:** Zein neurritan iruditzen zaizu larria zaborrak zuzenean lurrean uztea, edukiontzietatik, paperontzietatik edo egokitutako guneetatik kanpo (espaloian, bide publikoan, etab.)? Eta zure ustez, zein neurritan iruditzen zaie larria zure bizilagunei? (%)

|                  | Zuri<br>A | Zure bizilagunei<br>B | Diferentzia<br>(B-A) |
|------------------|-----------|-----------------------|----------------------|
| Oso larria       | 70,1      | 29,7                  | -40,4                |
| Nahiko larria    | 26,3      | 34,0                  | 7,7                  |
| Ez oso larria    | 3,0       | 17,0                  | 14,0                 |
| Batere larria ez | 0,5       | 2,7                   | 2,2                  |
| Ed/Ee            | 0,1       | 16,6                  | 16,5                 |
| Guztira          | 100,0     | 100,0                 |                      |

*Iturria: Siadeco 2021*

Zaborrak lurrean, edukiontzietatik kanpo edo horretarako prestatutako tokietatik kanpo (%70,1) uztea oso larria iruditzen zaien pertsonen proportzioa honela bana daiteke:


- %28,3k uste dute bizilagunei ere oso larria iruditzen zaiela
- %16,7k bizilagunei nahiko larria iruditzen zaiela
- %13,7k bizilagunei ez zaiela oso larria iruditzen, edo batere ez
- %11,4k ez dute erantzun bizilagunek aitortzen dioten larritasun-mailaren inguruan

**6 Taula:** Baterako ikuspegia: Zein neurritan iruditzen zaizu larria zaborrak zuzenean lurrean uztea, edukiontzietatik, paperontzietatik edo egokitutako guneetatik kanpo, eta zein neurritan iruditzen zaie larria zure bizilagunei.

| ZU                          | ZURE BIZILAGUNAK |               |                                   |       |         |
|-----------------------------|------------------|---------------|-----------------------------------|-------|---------|
|                             | Oso larria       | Nahiko larria | Ez oso edo<br>batere larria<br>ez | Ed/Ee | Guztira |
| Oso larria                  | 28,3             | 16,7          | 13,7                              | 11,4  | 70,1    |
| Nahiko larria               | 0,8              | 16,5          | 4,8                               | 4,2   | 26,3    |
| Ez oso edo batere larria ez | 0,5              | 0,8           | 1,2                               | 1,0   | 3,5     |
| Ed/Ee                       | 0,1              | 0,0           | 0,0                               | 0,0   | 0,1     |
| Guztira                     | 29,7             | 34,0          | 19,7                              | 16,6  | 100,0   |

*Iturria: Siadeco 2021*

**5. Grafikoa.** Baterako ikuspegia: Zein neurritan iruditzen zaizu larria zaborrak zuzenean lurrean uztea, edukiontzietatik, paperontzietatik edo egokitutako guneetatik kanpo, eta zein neurritan iruditzen zaie larria zure bizilagunei (%).



Iturria: Siadeco, 2021.

**7. Taula:** Zer neurritan iruditzen zaizu larria zuri zaborrak zuzenean lurrean uztea, edukiontzietatik, paperontzietatik edo egokitutako guneetatik kanpo (espaloian, bide publikoan, etab.)? sexuaren, adinaren, habitat-aren eta bizileku-eskualdearen arabera (%)

|                  | SEXUA       |            | ADINA      |            |            |           | HABITAT-A      |                     |               | ESKUALDEA       |                         |              |                 |                 | Guztira |
|------------------|-------------|------------|------------|------------|------------|-----------|----------------|---------------------|---------------|-----------------|-------------------------|--------------|-----------------|-----------------|---------|
|                  | Emakumezkoa | Gizonezkoa | 16-30 urte | 31-50 urte | 51-65 urte | > 65 urte | < 10.000 bizt. | 10.000-25.000 bizt. | >25.000 bizt. | Bidasoa Beherea | Deba Beherea/Debagoiena | Donostialdea | Gorri/Tolosalde | Urola Kostaldea |         |
| Oso larria       | 76,6        | 63,6       | 65,8       | 71,8       | 71,3       | 69,3      | 71,3           | 65,4                | 71,3          | 68,9            | 69,2                    | 67,9         | 77,3            | 71,1            | 70,1    |
| Nahiko larria    | 19,5        | 33,2       | 31,3       | 25,9       | 25,7       | 24,2      | 27,0           | 29,8                | 25,3          | 27,8            | 28,3                    | 27,4         | 20,9            | 25,6            | 26,3    |
| Ez oso larria    | 3,4         | 2,5        | 1,4        | 2,3        | 3,0        | 5,0       | 1,7            | 4,2                 | 2,8           | 3,3             | 2,5                     | 4,2          | 0,9             | 1,1             | 3,0     |
| Batere larria ez | 0,3         | 0,7        | 1,4        | 0,0        | 0,0        | 1,1       | 0,0            | 0,7                 | 0,5           | 0,0             | 0,0                     | 0,5          | 0,9             | 1,1             | 0,5     |
| Ed/Ee            | 0,2         | 0,0        | 0,0        | 0,0        | 0,0        | 0,5       | 0,0            | 0,0                 | 0,2           | 0,0             | 0,0                     | 0,0          | 0,0             | 1,1             | 0,1     |
| Guztira          | 100,0       | 100,0      | 100,0      | 100,0      | 100,0      | 100,0     | 100,0          | 100,0               | 100,0         | 100,0           | 100,0                   | 100,0        | 100,0           | 100,0           | 100,0   |

Iturria: Siadeco 2021

8. Taula: Zure ustez, zein neurritan iruditzen zaie larria zure bizilagunei zaborrak zuzenean lurrian uztea, edukiontzietatik, paperontzietatik edo egokitutako guneetatik kanpo (espaloian, bide publikoan, etab.)? sexuaren, adinaren, habitat-aren eta bizileku-eskualdearen arabera (%)

|                  | SEXUA       |            | ADINA      |            |            |           | HABITAT-A      |                     |               | ESKUALDEA       |                             |              |                    |                 | Guztira |
|------------------|-------------|------------|------------|------------|------------|-----------|----------------|---------------------|---------------|-----------------|-----------------------------|--------------|--------------------|-----------------|---------|
|                  | Emakumezkoa | Gizonezkoa | 16-30 urte | 31-50 urte | 51-65 urte | > 65 urte | < 10.000 bizt. | 10.000-25.000 bizt. | >25.000 bizt. | Bidasoa Beherea | Deba Beherea/<br>Debagolena | Donostialdea | Goierri/Tolosaldia | Urola Kostaldea |         |
| Oso larria       | 32,8        | 26,6       | 21,2       | 28,1       | 36,7       | 30,6      | 48,0           | 29,6                | 27,9          | 28,9            | 23,3                        | 27,4         | 37,3               | 38,9            | 29,7    |
| Nahiko larria    | 27,2        | 40,9       | 37,4       | 36,5       | 31,2       | 31,2      | 33,6           | 38,9                | 32,7          | 34,4            | 35,8                        | 33,2         | 32,7               | 36,7            | 34,0    |
| Ez oso larria    | 15,5        | 18,6       | 29,7       | 15,5       | 13,4       | 13,9      | 14,0           | 15,9                | 17,6          | 12,2            | 22,5                        | 18,9         | 13,6               | 10,0            | 17,0    |
| Batere larria ez | 3,3         | 2,0        | 2,9        | 2,3        | 2,0        | 3,7       | 0,0            | 2,6                 | 2,9           | 3,3             | 3,3                         | 2,1          | 2,7                | 3,3             | 2,7     |
| Ed/Ee            | 21,3        | 11,9       | 8,7        | 17,6       | 16,7       | 20,6      | 4,3            | 13,1                | 18,8          | 21,1            | 15,0                        | 18,4         | 13,6               | 11,1            | 16,6    |
| Guztira          | 100,0       | 100,0      | 100,0      | 100,0      | 100,0      | 100,0     | 100,0          | 100,0               | 100,0         | 100,0           | 100,0                       | 100,0        | 100,0              | 100,0           | 100,0   |


Iturria: Siadeco 2021

## 2.2 Zabor-biltegitratze desegokian eragina duten faktoreen balorazio pertsonala eta bizilagunena

Gipuzkoako 16 urte eta gehiagoko biztanleek honako garrantzia aitortzen diete horretarako berriaz prestatuta dauden lekuetatik kanpo hondakinak botatzeko ekintzan eragiten duten faktore ezberdinei:

- Herritarren %24,8k garrantzi handia (%12,7) edo nahiko handia (%12,1) ematen diote edukiontzietan eta paperontzietan lekurik ez egoteari (beteta egoten dira). Eta estimatzen dute euren bizilagunentzat garrantzi handia (%17,2) edo nahiko handia (%25,3) duela gai horrek.
- %20,7k garrantzi handia (%8,3) edo nahikoa (%12,4) ematen diote edukiontziak/paperontziak urrun izateari. Eta uste dute euren bizilagunen %36,7k garrantzi handia (%11,2) edo nahikoa (%25,5) ematen diotela gai horri.
- %19,4k garrantzi handia (%12,3) edo nahikoa (%7,1) ematen diote isun faltari edo isun txikiegiei. Eta adierazi dute bizilagunen %47,5ek garrantzi handia (%23,9) edo nahikoa (%23,6) ematen diotela gai horri.
- %18,1ek garrantzi handia (%7,7) edo nahiko handia (%10,4) ematen diote, garbiketa eta kontrol faltagatik, hondakinak pilatzen diren eremuak egoteari, hondakin gehiago botatzera bultzatzen dutelako. Eta uste dute bizilagunen %37,4k garrantzi handia (%12,9) edo nahikoa (%24,5) ematen diotela gai horri.
- %17,2k garrantzi handia (%4,7) edo nahikoa (%12,5) ematen diote hondakinak edukiontzietan/paperontzietan sartzeko zailtasunari. Eta uste dute bizilagunen %31,6k garrantzi handia (%9,5) edo nahiko handia (%22,1) ematen diotela gai horri.
- % 16,7k garrantzi handia (%9) edo nahikoa (%7,7) ematen diote hondakinak bereizi eta birziklatzeko kontzientzia urriari. Eta herritarren %44,6k uste dute bizilagunek garrantzi handia (%18,2) edo nahikoa (%26,4) ematen diotela gai horri.
- %8,6k bakarrik ematen diote garrantzi handia (%3,5) edo nahiko handia (%5,1) zaborra lurrean uzteko erosotasunari. Aldiz, %35ek adierazi dute bizilagunek garrantzi handia (%9,5) edo nahikoa (%22,1) ematen diotela gai horri.
- Oso ehuneko urriekin, beste gai batzuk ere aipatzen dira: herritarren gizalegerik eza, edukiontziak irekitzeko txartelak ahaztea, hondakinak lurrean uzten dituzten haur eta gazteen kontzientzia eskasa (pipak, latak, etab.), leku desegokietan uzten dena norbaitek garbituko duenaren segurtasuna (kale-garbitzailleak), ...

**6. Grafikoa.** Zein neurritan dute garrantzi HANDIA edo NAHIKOA ondorengo alderdiek zuk zaborrak horretara bideratutako lekuetatik kanpo uzterakoan? Eta zure ustez, zein neurritan dute garrantzi HANDIA edo NAHIKOA alderdi horiek zure bizilagunentzat? (%)



Iturria: Siadeco, 2021.

**9. Taula:** Zer garrantzia dute ondorengo alderdiek zuk zaborrak horretara bideratutako lekuetatik kanpo uzterakoan: handia, nahikoa, txikia edo batere eraginik ez? Eta zure ustez, zenbateko garrantzia dute alderdi horiek zure bizilagunentzat? (%)

|   | Handia   |                      | Nahikoa  |                      | Txikia   |                      | Batere ez |                      | Ed/Ee    |                      | Guztira  |                      |
|---|----------|----------------------|----------|----------------------|----------|----------------------|-----------|----------------------|----------|----------------------|----------|----------------------|
|   | Zuretzat | Zure bizilagunentzat | Zuretzat | Zure bizilagunentzat | Zuretzat | Zure bizilagunentzat | Zuretzat  | Zure bizilagunentzat | Zuretzat | Zure bizilagunentzat | Zuretzat | Zure bizilagunentzat |
| Edukiontzien/paperontzien urruntasuna   | 8,3      | 11,2                 | 12,4     | 25,5                 | 10,0     | 16,3                 | 69,1      | 36,4                 | 0,2      | 10,5                 | 100      | 100                  |
| Edukiontzietan/paperontzietan lekurik ez egotea (Beteta egotea)   | 12,7     | 17,2                 | 12,1     | 25,3                 | 20,1     | 22,3                 | 54,5      | 23,0                 | 0,6      | 12,3                 | 100      | 100                  |
| Edukiontzietan/paperontzietan hondakinak sartzeko zailtasuna  | 4,7      | 9,5                  | 12,5     | 22,1                 | 14,8     | 25,0                 | 66,9      | 31,6                 | 1,1      | 11,8                 | 100      | 100                  |
| Hondakinak lurrean uztea eroso izatea   | 3,5      | 14,0                 | 5,1      | 21,0                 | 6,6      | 19,8                 | 82,6      | 32,5                 | 2,2      | 12,7                 | 100      | 100                  |
| Hondakinak bereizteari eta birziklatzeari buruzko kontzientzia txikia   | 9,0      | 18,2                 | 7,7      | 26,4                 | 6,7      | 16,8                 | 74,9      | 24,1                 | 1,7      | 14,6                 | 100      | 100                  |
| Garbiketa eta kontrol faltagatik hondakinak pilatzen diren guneak egotea, hondakin gehiago botatzera bultzatzen dutenak | 7,7      | 12,9                 | 10,4     | 24,5                 | 6,7      | 15,4                 | 74,3      | 33,3                 | 0,9      | 13,9                 | 100      | 100                  |
| Zigorrik ez jartzea edo jartzen direnak oso txikiak izatea  | 12,3     | 23,9                 | 7,1      | 23,6                 | 6,8      | 12,4                 | 67,4      | 19,4                 | 6,3      | 20,7                 | 100      | 100                  |
| Besterik  | 1,3      | 1,9                  | 1,3      | 1,9                  | 0,0      | 0,0                  | 1,7       | 1,8                  | 96,7     | 95,8                 | 100      | 100                  |

*Iturria: Siadeco 2021*

Zaborrak horretarako prestatutako tokietatik kanpo uztea eragiten duten alderdi guztiekin lotuta, bizilagunek ematen dieten garrantziaren pertzepzioa nabarmen altuagoa da norberak aitortzen diena baino: "bizilagunentzat, egon daitezkeen oztopo guztiak dira garrantzitsuagoak hondakinak egoki ez biltegitzearekin lotuta". Horren ondorioa izan daiteke bizilagunek norberak baino okerrago jokatzeko joera dutela, norberaren ikuspuntutik. Beraz, berriro ere antzematen da proiektzio-planteamendu bat, ingurukoengan gizalege gutxiagoko jokabideak hautematen baitira. Dena den, kasu honetan ere, alderdi horiek bizilagunentzat duten garrantziaren inguruan erantzun ez duten pertsonen proportzioa askoz altuagoa da norberarentzat duten garrantziaz ari direnean baino.

Norberak zaborra horretarako berariaz prestatutako lekuetatik kanpo uzteko gehien eragiten duten alderdiak ondorengoak dira: edukiontzi falta, edukiontziak/paperontziak urrun egotea eta isun txikiak edo isun falta.

Bizilagunen kasuan, ordea, zaborra horretarako prestatutako lekuetatik kanpo uzteko gehien eragiten duten alderdiak ondorengoak dira: isun txikiegiak edo isun falta, hondakinak bereizi eta birziklatzeko kontzientzia txikia eta edukiontzietan eta paperontzietan espaziorik ez egotea.

Norberak arrazoi horiei ematen dien garrantziaren eta bizilagunek ematen dieten garrantziaren pertzepzioaren artean diferentzia gehien erakusten duten alderdiak ondorengoak dira: isun txikiegiak edo isun falta, hondakinak bereizi eta birziklatzeko kontzientzia txikia eta hondakinak lurrean uztearen erosotasuna.

**10. Taula:** Garrantzi handia eta nahikoa ematen zaien alderdiak zuk eta zure bizilagunek zaborrak horretara bideratutako lekuetatik kanpo uzteko (%)

|   | Garrantzi handia eta nahikoa. |                      |             |
|---|-------------------------------|----------------------|-------------|
|   | Zuretzat                      | Zure bizilagunentzat | Diferentzia |
|   | A                             | B                    | (B-A)       |
| Edukiontzietan/paperontzietan lekurik ez egotea (Beteta egotea)   | 24,8                          | 42,5                 | 17,7        |
| Edukiontzien/paperontzien urruntasuna   | 20,7                          | 36,7                 | 16,0        |
| Zigorrik ez jartzea edo jartzen direnak oso txikiak izatea  | 19,4                          | 47,5                 | 28,1        |
| Garbiketa eta kontrol faltagatik hondakinak pilatzen diren guneak egotea, hondakin gehiago botatzera bultzatzen dutenak | 18,1                          | 37,4                 | 19,3        |
| Edukiontzietan/paperontzietan hondakinak sartzeko zailtasuna  | 17,2                          | 31,6                 | 14,4        |
| Hondakinak bereizteari eta birziklatzeari buruzko kontzientzia txikia   | 16,7                          | 44,6                 | 27,9        |
| Hondakinak lurrean uztea eroso izatea   | 8,6                           | 35,0                 | 26,4        |

*Iturria: Siadeco 2021*



11. Taula: Zaborrak horretara bideratutako lekuetatik kanpo uzterakoan, zein neurritan da garrantzitsua zuretzat eta zure ustez zure bizilagunentzat EDUKIONTZIETAN/PAPERONTZIETAN LEKURIK EZ EGOTEA (BETETA EGOTEA)? sexuaren, adinaren, habitat-aren eta bizileku-eskualdearen arabera (%)

|           |                      | SEXUA       |            | ADINA      |            |            |           | HABITAT-A      |                     |               | ESKUALDEA       |                             |              |                    |                 | Guztira |
|-----------|----------------------|-------------|------------|------------|------------|------------|-----------|----------------|---------------------|---------------|-----------------|-----------------------------|--------------|--------------------|-----------------|---------|
|           |                      | Emakumezkoa | Gizonezkoa | 16-30 urte | 31-50 urte | 51-65 urte | > 65 urte | < 10.000 bizt. | 10.000-25.000 bizt. | >25.000 bizt. | Bidasoa Beherea | Deba Beherea/<br>Debagolena | Donostialdea | Goierri/Tolosaldea | Urola Kostaldea |         |
| Handia    | Zuretzat             | 11,0        | 14,4       | 27,0       | 11,8       | 11,6       | 5,0       | 24,8           | 16,3                | 10,4          | 14,4            | 10,0                        | 12,1         | 18,2               | 8,9             | 12,7    |
| Batere eraginkortasunik ez | 3,5         | 1,9        | 0,7        | 2,9        | 2,0        | 4,7       | 0,0            | 1,8                 | 3,3           | 9,3             | 0,9                         | 2,1          | 0,9                | 4,5             | 2,7     |
| Ed/Ee                      | 3,9         | 0,5        | 1,5        | 1,1        | 2,1        | 4,4       | 4,3            | 1,8                 | 2,1           | 3,5             | 1,7                         | 1,6          | 2,8                | 3,4             | 2,2     |
| Guztira                    | 100,0       | 100,0      | 100,0      | 100,0      | 100,0      | 100,0     | 100,0          | 100,0               | 100,0         | 100,0           | 100,0                       | 100,0        | 100,0              | 100,0           | 100,0   |

Iturria: Siadeco 2021

**53. Taula:** Zure ustez, hondakinak horretara bideratutako lekuetatik kanpo utz EZ ditzaten herritarrak informatu eta sentsibilizatzeko, zer eraginkortasun-maila dute INTERNET ETA SARE SOZIALEK?, sexuaren, adinaren, habitat-aren eta bizileku-eskualdearen arabera (%97,8arekiko)

|                            | SEXUA       |            | ADINA      |            |            |           | HABITAT-A      |                     |               | ESKUALDEA       |                         |              |                     |                 | Guztira |
|----------------------------|-------------|------------|------------|------------|------------|-----------|----------------|---------------------|---------------|-----------------|-------------------------|--------------|---------------------|-----------------|---------|
|                            | Emakumezkoa | Gizonezkoa | 16-30 urte | 31-50 urte | 51-65 urte | > 65 urte | < 10.000 bizt. | 10.000-25.000 bizt. | >25.000 bizt. | Bidasoa Beherea | Deba Beherea/Debagoiena | Donostialdea | Goierrri/Tolosaldea | Urola Kostaldea |         |
| Eraginkortasun handia      | 47,7        | 46,7       | 68,4       | 51,0       | 39,8       | 34,2      | 42,8           | 45,3                | 48,2          | 47,7            | 45,3                    | 50,3         | 46,3                | 37,5            | 47,2    |
| Eraginkortasun nahikoa     | 27,1        | 23,6       | 24,1       | 30,6       | 28,7       | 15,3      | 24,3           | 23,0                | 26,1          | 23,3            | 23,1                    | 26,2         | 25,9                | 26,1            | 25,3    |
| Eraginkortasun txikia      | 5,8         | 17,3       | 5,9        | 11,8       | 17,2       | 9,6       | 14,9           | 18,5                | 9,3           | 11,6            | 14,5                    | 10,2         | 15,7                | 6,8             | 11,6    |
| Batere eraginkortasunik ez | 4,0         | 3,3        | 0,9        | 1,1        | 6,7        | 6,1       | 4,0            | 4,1                 | 3,5           | 2,3             | 3,4                     | 3,2          | 4,6                 | 5,7             | 3,6     |
| Ed/Ee                      | 15,5        | 9,0        | 0,7        | 5,5        | 7,7        | 34,8      | 13,9           | 9,1                 | 13,0          | 15,1            | 13,7                    | 10,2         | 7,4                 | 23,9            | 12,2    |
| Guztira                    | 100,0       | 100,0      | 100,0      | 100,0      | 100,0      | 100,0     | 100,0          | 100,0               | 100,0         | 100,0           | 100,0                   | 100,0        | 100,0               | 100,0           | 100,0   |

Iturria: Siadeco 2021

**54. Taula:** Zure ustez, hondakinak horretara bideratutako lekuetatik kanpo utz EZ ditzaten herritarrak informatu eta sentsibilizatzeko, zer eraginkortasun-maila du IRRATIAK?, sexuaren, adinaren, habitat-aren eta bizileku-eskualdearen arabera (%97,8arekiko)

|                            | SEXUA       |            | ADINA      |            |            |           | HABITAT-A      |                     |               | ESKUALDEA       |                         |              |                     |                 | Guztira |
|----------------------------|-------------|------------|------------|------------|------------|-----------|----------------|---------------------|---------------|-----------------|-------------------------|--------------|---------------------|-----------------|---------|
|                            | Emakumezkoa | Gizonezkoa | 16-30 urte | 31-50 urte | 51-65 urte | > 65 urte | < 10.000 bizt. | 10.000-25.000 bizt. | >25.000 bizt. | Bidasoa Beherea | Deba Beherea/Debagoiena | Donostialdea | Goierrri/Tolosaldea | Urola Kostaldea |         |
| Eraginkortasun handia      | 38,0        | 34,0       | 27,0       | 38,3       | 39,4       | 35,6      | 27,9           | 35,2                | 37,0          | 25,6            | 37,6                    | 41,2         | 32,4                | 26,1            | 36,0    |
| Eraginkortasun nahikoa     | 33,1        | 38,7       | 41,8       | 37,2       | 33,5       | 32,5      | 48,7           | 39,4                | 33,7          | 46,5            | 32,5                    | 32,1         | 39,8                | 42,0            | 35,9    |
| Eraginkortasun txikia      | 20,1        | 22,9       | 23,9       | 21,1       | 23,5       | 18,3      | 14,8           | 19,1                | 22,9          | 16,3            | 25,6                    | 21,9         | 19,4                | 21,6            | 21,5    |
| Batere eraginkortasunik ez | 2,9         | 3,4        | 5,8        | 1,8        | 1,6        | 4,8       | 0,0            | 4,0                 | 3,3           | 7,0             | 0,0                     | 3,2          | 3,7                 | 3,4             | 3,2     |
| Ed/Ee                      | 5,8         | 1,0        | 1,5        | 1,5        | 2,1        | 8,8       | 8,6            | 2,4                 | 3,2           | 4,7             | 4,3                     | 1,6          | 4,6                 | 6,8             | 3,4     |
| Guztira                    | 100,0       | 100,0      | 100,0      | 100,0      | 100,0      | 100,0     | 100,0          | 100,0               | 100,0         | 100,0           | 100,0                   | 100,0        | 100,0               | 100,0           | 100,0   |

Iturria: Siadeco 2021



**55. Taula:** Zure ustez, hondakinak horretara bideratutako lekuetatik kanpo utz EZ ditzaten herritarrek informatu eta sentsibilizatzeko, zer eraginkortasun-maila dute EGUNKARIAK ETA HERRI ALDIZKARIAK?, sexuaren, adinaren, habitat-aren eta bizileku-eskualdearen arabera (%97,8arekiko)

|                            | SEXUA       |            | ADINA      |            |            |           | HABITAT-A      |                     |               | ESKUALDEA       |                         |              |                     |                 | Guztira |
|----------------------------|-------------|------------|------------|------------|------------|-----------|----------------|---------------------|---------------|-----------------|-------------------------|--------------|---------------------|-----------------|---------|
|                            | Emakumezkoa | Gizonezkoa | 16-30 urte | 31-50 urte | 51-65 urte | > 65 urte | < 10.000 bizt. | 10.000-25.000 bizt. | >25.000 bizt. | Bidasoa Beherea | Deba Beherea/Debagoiena | Donostialdea | Goiherri/Tolosaldea | Urola Kostaldea |         |
| Eraginkortasun handia      | 34,9        | 32,7       | 35,0       | 31,3       | 33,4       | 36,7      | 39,0           | 37,1                | 32,3          | 22,1            | 42,7                    | 32,1         | 36,1                | 35,2            | 33,8    |
| Eraginkortasun nahikoa     | 37,2        | 37,9       | 38,4       | 41,2       | 36,0       | 33,3      | 28,8           | 38,3                | 38,1          | 40,7            | 29,9                    | 41,2         | 37,0                | 30,7            | 37,5    |
| Eraginkortasun txikia      | 22,8        | 23,9       | 23,0       | 22,5       | 26,7       | 21,3      | 25,9           | 21,0                | 23,8          | 24,4            | 22,2                    | 23,0         | 22,2                | 27,3            | 23,3    |
| Batere eraginkortasunik ez | 1,8         | 4,3        | 2,1        | 2,7        | 3,0        | 4,3       | 2,0            | 2,5                 | 3,3           | 5,8             | 1,7                     | 2,7          | 2,8                 | 4,5             | 3,1     |
| Ed/Ee                      | 3,5         | 1,2        | 1,5        | 2,3        | 1,0        | 4,4       | 4,3            | 1,2                 | 2,5           | 7,0             | 3,4                     | 1,1          | 1,9                 | 2,3             | 2,3     |
| Guztira                    | 100,0       | 100,0      | 100,0      | 100,0      | 100,0      | 100,0     | 100,0          | 100,0               | 100,0         | 100,0           | 100,0                   | 100,0        | 100,0               | 100,0           | 100,0   |

Iturria: Siadeco 2021

**56. Taula:** Zure ustez, hondakinak horretara bideratutako lekuetatik kanpo utz EZ ditzaten herritarrek informatu eta sentsibilizatzeko, zer eraginkortasun-maila dute HITZALDIAK, MAHAI-INGURUAK?, sexuaren, adinaren, habitat-aren eta bizileku-eskualdearen arabera (%97,8arekiko)

|                            | SEXUA       |            | ADINA      |            |            |           | HABITAT-A      |                     |               | ESKUALDEA       |                         |              |                     |                 | Guztira |
|----------------------------|-------------|------------|------------|------------|------------|-----------|----------------|---------------------|---------------|-----------------|-------------------------|--------------|---------------------|-----------------|---------|
|                            | Emakumezkoa | Gizonezkoa | 16-30 urte | 31-50 urte | 51-65 urte | > 65 urte | < 10.000 bizt. | 10.000-25.000 bizt. | >25.000 bizt. | Bidasoa Beherea | Deba Beherea/Debagoiena | Donostialdea | Goiherri/Tolosaldea | Urola Kostaldea |         |
| Eraginkortasun handia      | 26,6        | 24,2       | 32,9       | 24,1       | 21,7       | 25,4      | 21,4           | 30,6                | 24,2          | 22,1            | 24,8                    | 23,0         | 35,2                | 25,0            | 25,4    |
| Eraginkortasun nahikoa     | 30,9        | 29,2       | 41,4       | 34,8       | 25,9       | 19,3      | 42,6           | 27,8                | 29,5          | 33,7            | 33,3                    | 27,3         | 29,6                | 34,1            | 30,0    |
| Eraginkortasun txikia      | 28,4        | 31,8       | 22,7       | 29,6       | 37,5       | 28,7      | 23,9           | 27,6                | 31,5          | 25,6            | 23,9                    | 37,4         | 23,1                | 22,7            | 30,1    |
| Batere eraginkortasunik ez | 5,7         | 7,5        | 0,0        | 6,9        | 7,2        | 10,5      | 6,2            | 8,3                 | 6,2           | 3,5             | 11,1                    | 6,4          | 4,6                 | 6,8             | 6,6     |
| Ed/Ee                      | 8,4         | 7,3        | 3,0        | 4,5        | 7,7        | 16,0      | 6,0            | 5,8                 | 8,6           | 15,1            | 6,8                     | 5,9          | 7,4                 | 11,4            | 7,8     |
| Guztira                    | 100,0       | 100,0      | 100,0      | 100,0      | 100,0      | 100,0     | 100,0          | 100,0               | 100,0         | 100,0           | 100,0                   | 100,0        | 100,0               | 100,0           | 100,0   |

Iturria: Siadeco 2021

**57. Taula:** Zure ustez, hondakin horretara bideratutako lekuetatik kanpo utz EZ ditzaten herritarrak informatu eta sentsibilizatzeko, zer eraginkortasun-maila du POSTA BIDEZKO INFORMAZIOAK?, sexuaren, adinaren, habitat-aren eta bizileku-eskualdearen arabera (%97,8arekiko)

|                            | SEXUA       |            | ADINA      |            |            |           | HABITAT-A      |                     |               | ESKUALDEA       |                             |              |                    |                 | Guztira |
|----------------------------|-------------|------------|------------|------------|------------|-----------|----------------|---------------------|---------------|-----------------|-----------------------------|--------------|--------------------|-----------------|---------|
|                            | Emakumezkoa | Gizonezkoa | 16-30 urte | 31-50 urte | 51-65 urte | > 65 urte | < 10.000 bizt. | 10.000-25.000 bizt. | >25.000 bizt. | Bidasoa Beherea | Deba Beherea/<br>Debagolena | Donostialdea | Goierri/Tolosaldea | Urola Kostaldea |         |
| Eraginkortasun handia      | 18,6        | 18,6       | 14,5       | 12,9       | 17,8       | 30,4      | 17,1           | 29,2                | 15,7          | 22,1            | 22,2                        | 12,3         | 29,6               | 20,5            | 18,6    |
| Eraginkortasun nahikoa     | 29,7        | 26,7       | 24,6       | 31,3       | 24,6       | 30,0      | 30,7           | 26,0                | 28,5          | 26,7            | 26,5                        | 30,5         | 26,9               | 23,9            | 28,2    |
| Eraginkortasun txikia      | 34,4        | 34,0       | 43,6       | 38,0       | 34,7       | 21,6      | 38,1           | 35,2                | 33,6          | 26,7            | 36,8                        | 35,3         | 34,3               | 33,0            | 34,2    |
| Batere eraginkortasunik ez | 14,4        | 19,3       | 15,7       | 15,5       | 21,3       | 15,2      | 7,7            | 7,8                 | 20,4          | 19,8            | 12,8                        | 20,9         | 5,6                | 20,5            | 16,9    |
| Ed/Ee                      | 2,9         | 1,3        | 1,5        | 2,3        | 1,6        | 2,8       | 6,5            | 1,8                 | 1,8           | 4,7             | 1,7                         | 1,1          | 3,7                | 2,3             | 2,1     |
| Guztira                    | 100,0       | 100,0      | 100,0      | 100,0      | 100,0      | 100,0     | 100,0          | 100,0               | 100,0         | 100,0           | 100,0                       | 100,0        | 100,0              | 100,0           | 100,0   |

Iturria: Siadeco 2021

6

KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIAK

## 6.1 Testuinguru komunikatiboa

Sakabanatutako zaborren arazoa eta zaborrak ingurumenera botatzearen ondorioz sortzen den kutsadurarena mugatzeko gauzatu nahi diren komunikazio-ildoak testuinguru jakin batean kokatzen dira, eta honako hauek dira haren ezaugarri nagusiak:

- Sakabanatutako zaborren eta plastikoen eraginez ingurumena kutsatzearen inguruan Gipuzkoako biztanleek adierazi duten kezka handia
- Zaborrak zuzenean edukiontzietatik, zakarrontzietatik eta horretarako prestatutako eremuetatik kanpora botatzeari herritarrek aitortzen dioten larritasun-maila handia (espaloian, eremu publikoetan...etab.). Hori ez dator bat bizilagunek ematen dioten garrantzi apalagoari buruz duten pertzepzioarekin.
- Zabor eta plastiko sakabanatuen ondoriozko egungo eta etorkizuneko inpaktuei herritarrek aitortzen dieten larritasun-maila.
- Kutsadura mota hori murrizteko enpresei-industriei eta administrazioari egozten zaien erantzukizun handiagoa, norberak maila pertsonalean onartzen duenaren aldean.
- Zaborren eta plastikoen kutsadura murrizteko herritarrek dagoeneko hartu dituzten neurriak: plastikoen erabilera saihestea, gainpaketatutako produktuen erosketa ekiditea...etab.
- Biztanleek gai horren inguruan adierazten duten informazio- eta prestakuntza-premia handia.
- Komunikazio-kanal ezberdinei, eta, zehatzago, lehen-mailako sozializazio-agenteei aitortzen dieten eraginkortasun-maila: hezkuntza- eta formazio-zentroak, familia eta lagunak. Alde batera utzi gabe, dena den, komunikabide tradizionalak eta IKTekin lotutakoak.

## 6.2 Sinesgarritasun euskarria

Komunikazio-testuinguru horretan, oso garrantzitsua da administrazioak, kasu honetan Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak, sinesgarritasun-euskarri sendo bat edukitzea. Alde horretatik, besteak beste, honako gai hauek bermatuko ditu:

- Herritarrengandik hurbil dauden edukiontzien/paperontzien kantitate eta edukiera egokia, hondakinak haietan sartzeko erraztasun handiarekin.
- Hondakinak pilatzen diren eta hondakin gehiago botatzera bultzatzen duten eremuak ezabatzea.
- Eremu publikoetako, ibaietako eta naturguneetako isurketa-guneak garbitzea (dei-efektua saihestuz).
- Enpresen aldetik, ontziratzea murrizteko eta hondakinak modu egokian biltegiratzeko ekarpena egitea.
- Herritarrek, modu boluntarioan, ibaietatik, kostaldetik, mendietatik eta abarretatik zaborrak jasotzeko egiteko egiten duten lana sustatzea eta behar diren baliabideekin laguntzea.
- Zaintza-lan egokia egitea, behar izanez gero isunak ere jarriz.
- Egoki biltegiratutako hondakin guztiak birziklatzea.
- ...etab.

Bestalde, Gipuzkoako 16 urteko eta hortik gorako biztanleen lagin adierazgarri bati egindako inkesta-prozesu baten bidez garatutako proiektu hau ere sinesgarritasun-euskarri garrantzitsu bat da, halaber, zaborrak ingurumenera isurtzearekin lotutako motibazio- eta portaera-alderdien ezagutzari dagokionez. Hori dela eta, jendaurrean aurkeztu eta zabaldu beharko da, horretarako, egokitzen diren kanalak erabiliz.

### 6.3 Posizionamendua

Planteatzen ditugun komunikazio-estrategien helburu nagusia da Gipuzkoako herritarren artean sentsibilizazio pertsonala sortzea, kontzientzia har dezaten eta ekintza zibikora pasa daitezen, asebetetze pertsonala lortuz eta zabor sakabanatuen arazoa eta horrek ingurumenean dituen ondorio larriak murrizten lagunduz. Hori guztia, proiektzio-mekanismoa gaindituz.

Komunikazio-estrategiaren bidez, "kezka-sentsibilizaziotik" "okupazio-sentsibilizaziora" pasa nahi da, zaborren sakabanaketak duen inpaktu negatiboari buruz dagoen kontzientziak ardura eta konpromiso-maila handiagoa eragin dezan, asebetetze-pertsonala dakarten ekintza edo portaera egokiak bultzatuz.

Alde horretatik, erantzukizuna eta gogobetetasuna modu orekatuan transmitituko dituen komunikazio emozionala garatu behar da. Aurrekoarekin lotuta, zabor sakabanatuak eragindako kutsaduraren ondorio negatiboak ez lirateke gehiegi estimulatu behar... (biztanleriaren zati handi batek barneratu baitu hori, dagoeneko), izan ere, intsentsibilizazioa ere eragin dezakete, zaborrak egoki biltegitzearen garrantziarekin lotuta.

Ahal den neurrian, zaborrak botatzearekin eta ingurumena babestearekin lotutako ekintza praktikoekin bat egin beharko luke komunikazio-estrategiak.

## 6.4 Helburuak

Posizionamenduan planteatu dugun helburu orokor hori zenbait helburu zehatz eta espezifikotan xehe daiteke. Helburu horiek, neurri handi batean, xede-talde desberdinekin lotuta egongo dira. Helburuak ondorengoak izan daitezke:

- ⇒ Zaborrak behar bezala biltzeko prestatutako toki edo eremu bakoitzaren helburuaren eta erabiltzeko uneen benetako ezagutza sustatzea (paperontziak, edukiontzi motak, Garbiguneak...): "Informatzea eta bakoitza zein tokitan utzi behar den hobeto ikastea".
- ⇒ Jatorrizko tokian bertan zaborraren gaikako sailkapenari buruzko informazioa ematea eta hura sustatzea: etxebizitzetan (materia organikoa —gainerako elikagaiak—, olioak, beira, papera eta kartoia, plastikoa eta ontziak, arropa, pilak, altzariak eta zurezko hondakinak, tresna elektriko eta elektronikoak, produktu arriskutsuak —pinturak, bernizak, disolbatzaileak...—, bestelako hondakinak, etab.): "Informatzea eta hondakinak hobeto bereizten/sailkatzen ikastea".
- ⇒ Hondakinak modu egokian sailkatzearen eta uztearen erraztasuna eta erosotasuna erakustea.
- ⇒ Hondakinak gordetzen ahalegintzea, dagozkien lekuetan modu egokian uzteko aukera eduki arte.
- ⇒ Herritarrek laguntza eska dezaten sustatzea (senideei, bizilagunei...) ezin dituztenean hondakinak dagozkien lekuetan utzi.
- ⇒ Hondakinen biltegiratze egokiari prestigioa ematea, maila indibidualean eta sozialean, jokabide horren garrantzia indartuz eta balioa emanez, ingurumenean eta gure eguneroko bizitzan eragin kaltegarriak saihesten baitira horrela.
- ⇒ Zaborren biltegiratze egokian norberak duen erantzukizuna azpimarratzea, eta batez ere, horrek eragiten duen asebetetzea nabarmentzea: "jokabide atsegina da, gustura egiten dena eta autoestimua sortzen duena". Portaerari lotua: modernoa, aurrerakoa, norbanako mailan eta gizarte gisa aurrera egitekoa.

## 6.5 Publikoak

Esku artean dugun informazioa kontuan hartuta, xede-talde edo publiko desberdinak bereiziko ditugu, horiengan eragiteko:

- Hezkuntza- eta formazio-zentroak: hezkuntza-komunitate osoaren mailan (irakasleak, gurasoak eta ikasleak).
- Elkarre-sarea, oro har, eta, batez ere, ingurumena zaintzeari eta babesteari zuzenean edo zeharka lotutako jarduerak aurrera eramaten dituzten elkarteak eta erakundeak.
- Gizartea, orokorrean, ondorengo target ezberdinak bereiziz:
  - Hezkuntza-zentroetako haurrak.
  - Hezkuntza-zentroetako gazteak.
  - Hezkuntza-adinean dauden seme-alabak dituzten familiak (ikastetxeko testuinguruan komunikazio-estimulu indartsuak jaso dituzten seme-alaben bitartez familiengan eragiteak garrantzi handia izan dezake).
  - Gainerako familia-unitateak.
  - Hondakinak bereizteko eta modu egokian biltegitratzeko zailtasun objektiboak dituzten pertsonak (mugikortasun arazoak dituzten adinekoak, mendekotasun-maila bat duten pertsonak...).
  - Gainerako biztanleak.



## 6.6 Sormen- eta komunikabide-estrategia

Sormen- eta komunikabide-estrategiak oso kontuan izan beharko du testuinguru komunikatiboan, posizionamenduan, helburuetan eta xede-taldeekin lotuta planteatutako gutzia. Hautatutako gai orokor batzuk dira hemen azaltzen direnak, baina garrantzitsuak sormen- eta komunikabide-estrategia horrekin lotuta.

Sormenaren ikuspuntutik, zaborren biltegitratze egokiarekin lotuta, gogobetetze pertsonala, osasun indibiduala eta soziala eta Gipuzkoako ingurumenaren babes: interesgarria litzateke marka-irudi korporatibo bat sortzea (bere ezaugarri eta balio propioekin) eta identitate bisual bat ematea, logotipo baten bitartez. Diseinatzen diren komunikazio-euskarri guztietan agertuko litzateke logotipo hori, eta merchandising-estrategia oso bat landu ahalko litzateke haren inguruan.

Komunikazio-euskarri edo kanalen inguruan, interesgarria izan liteke:

- Bi unitate didaktiko praktiko egitea ikastetxeetako hezkuntza-komunitatearekin lantzeko: Lehen Hezkuntzako bigarren ziklorako bat eta DBHko bigarren ziklorako bestea.
- Zenbait spot ekoiztea, oso laburrak, ikus-entzunezko komunikabideetan eta sare sozialetan zabaltzeko. Planteatutako helburu komunikatiboetako batzuk erreferentziatzen hartuta, bost spot mota egin litezke, ondorengo egoera-motak landuz:
  - Hondakin bota ezberdinak dagozkien lekuetan uzten dituzten umeak, jolas baten modura egingo balute bezala: gozoki-bilgarriak, pipa-azalak, txikleak... etab.
  - Kanean bildutako gazteak (parkean, plazan), hizketan, ondo pasatzen, jaten eta edaten... Ondoren, sortutako hondakin guztiak (ontziak, plastikozko poltsak eta botilak, gainerako janariak...etab.) dagozkien lekuetan uzten dituzte, modu atseginean eta haien gogobetetasuna azalduz.
  - Kanean dabilen pertsona, hondakin edo zaborren bat uzteko lekua topatzen ez duena (bilgarriren bat, zigarro-puntaren bat...) eta patrikan edo poltsaren batean gordetzen duena, aurrerago dagokion lekuan uzteko.
  - Edukiontzietara edo hondakinak uzteko prestatutako tokietara gerturatzen den pertsona, eta arrazoi ezberdinak direla medio, hondakinak uzteko zailtasunak dituen, hondakinekin etxera itzuliz edo laguntza eskatuz.
  - Garbigune batera doan pertsona, altzariak, aparatu elektronikoak, pinturak, bernizak, disolbatzaileak... Bere gogobetetzea adierazten du hondakin horiek utzi izanagatik, eta eskerrak ematen dizkie zerbitzuko langileei eman dioten laguntzagatik.

7

ONDORIOAK

1

## Zabor sakabanatuaren kontzeptuarekiko lotura.

Egiaztatu ahal izan dugunez, zabor sakabanatua, ingurune naturalean botatakoa, herritarren portaera desegokiarekin lotzen dute: “utzikeriagatik gertatzen da” (%30). Baita bizi dugun gehiegizko kontsumoko sistemarekin —kapitalista— (%17,5) eta birziklatzeko behararekin ere (%14,3). Alderdi horiek guztiek norberaren eta gizarte-sistemaren beraren portaerarekin zerikusia duten gaiei egiten diete erreferentzia.

Neurri txikiagoan, baina nolabaiteko garrantziarekin, baita ere, sakabanatutako zaborra ibaien eta itsasoen kutsadurarekin (%14,5) eta plastikoekin (%10,3) lotzen da; hau da, haren eragin edo ondorioetako batzuekin lotzen da.

Azkenik, biztanleriaren ehuneko txiki batek (%5,9) arazo hori gerta ez dadin isunak jartzeko behararekin lotzen du zabor sakabanatuaren existentzia.

2

## Sakabanatutako zaborren ondoriozko kutsadurarekiko kezka, eta arazo nagusiak.

Ingurumenaren kutsadurarekiko kezka handi bat dagoela egiaztatu da, zabor sakabanatuekin eta plastikoekin lotuta: herritarren %48,6k oso arduratuta daudela baieztatu dute, eta %46,9k nahiko arduratuta.

Biztanleriaren %57k uste du inguruan botatzen diren zaborrek eta plastikoek sortzen duten arazo nagusia ingurumena kutsatzea dela (ibaiak, itsasoak...). % 13,4k uste du inpaktu bisual negatiboa dela arazo nagusia. % 6,7k arratoi, parasito, zomorro, euli eta abarren ugalketa. %5ek usain txarrak. % 4,7k euria egiten duenean estoldak tratatzea, eta %3,7k infekzio-guneak sortzea (bakterioen kutsaduragatik).

Herritarren artean nahiko barneratuta dago zaborrak ingurumenaren kutsadura dakarrela (batez ere ibaiena eta itsasoena).

3

### Hondakinen biltegitratze desegokiaren larritasuna.

Diferentzia handia dago zaborren biltegitratze desegokiari norberak aitortzen dion larritasun-maila altuaren eta bizilagunek ematen diotenaren inguruko pertzepzioaren artean: biztanleriaren %70,1ek oso larritzat du zaborrak lurlean botata uztea, horretarako berariaz jarritako edukiontzi edo paperontzietatik (espaloian) kanpo, eta %29,7k soilik estimatu du bizilagunei oso larria iruditzen zaiela arazo hori. Hala ere, azpimarratu behar da biztanleen %16,6k ez dutela bizilagunek ematen dioten larritasun-maila estimatu (ez dakite edo ez dute erantzun).

Nolabait ere, "besteenganako proiektio" bat dagoela dirudi, arazoaren larritasunaren inguruko sensibiltzazioari dagokionez. Balorazio-diferentzia horren atzean, honelako planteamendu bat egon liteke: "besteak dira, nire bizilagunak, arazoa hain larritzat jotzen ez dutenak, eta horregatik ematen dira, neurri handiagoan, horrelako jokabide desegokiak".

4

### Hondakinen biltegitratze desegokia eragiten duten faktoreak.

Garrantzi handia eta nahikoa ematen zaie, norberaren jokabideari dagokionez, zaborra horretarako prestatuta dauden lekuetatik kanpo uztea eragiten duten ondorengo alderdiei: edukiontzi falta (%24,8), edukiontzi/paperontziak urrun egotea (%20,7), isun falta edo isun txikiegiak (%19,4), garbiketa- eta kontrol-faltagatik hondakinak pilatzen dituzten eta hondakin gehiago botatzea eragiten duten eremuak egotea (%18,1), hondakinak edukiontzi/paperontzietan sartzeko zailtasuna (%17,2), hondakinen bereizketa eta birziklatzerako kontzientzia eskasa (%16,7), eta, diferentzia nabarmenarekin, zaborra lurrera botatzearen erosotasuna ere aipatzen da (%8,6).

Bizilagunek faktore horiei ematen dieten garrantziaren inguruko pertzepzioei dagokienez, garrantzia handia edo nahikoa aipatzen dira honako kasu hauetan: isun falta edo isun txikiegiak (%47,5), hondakinak bereizteko eta birziklatzeko kontzientzia eskasa (%44,6), leku falta edukiontzietan eta paperontzietan (%42,5), garbiketa- eta kontrol-faltagatik hondakinak pilatzen dituzten eta hondakin gehiago botatzea eragiten duten eremuak egotea (%37,4), edukiontzi/paperontzien urruntasuna (%36,7) zaborrak lurrera botatzearen erosotasuna (%35,0) eta hondakinak edukiontzi/paperontzietan sartzeko zailtasuna (%31,6).

Dena den, kasu honetan ere, alderdi horiek bizilagunentzat duten garrantziaren inguruko erantzunik eman ez duten pertsonen proportzioa askoz altuagoa da norberari dagokion informazioa ematerako orduan baino.

Zaborrak horretarako prestatutako tokietatik kanpo uztea eragiten duten alderdi guztiekin lotuta, bizilagunek ematen dieten garrantziaren pertzepzioa nabarmen altuagoa da norberak aitortzen diena baino: "bizilagunentzat, egon daitezkeen oztopo guztiak dira garrantzitsuagoak hondakinak egoki ez biltegitazarekin lotuta". Horren ondorioa da bizilagunek norberak baino okerrago jokatzeko joera dutela, norberaren ikuspuntutik. Beraz, berriro ere antzematen da proiektio-planteamendu bat, ingurukoengan gizalege gutxiagoko jokabideak hautematen baitira. Norberak bere jokabide desegokiak ez onartzea ere gerta daiteke.

Aurrekoarekin lotuta, norberak arrazoi horiei ematen dien garrantziaren eta bizilagunek ematen dieten garrantziaren pertzepzioaren artean diferentzia gehien erakusten duten alderdiak ondorengoak dira: isun txikiegiak edo isun falta, hondakinak bereizi eta birziklatzeko kontzientzia txikia eta hondakinak lurrean uztearen erosotasuna. "Bizilagunentzat oztopo horiek askoz ere garrantzitsuagoak dira norberarentzat baino".

## 5

### Zabor eta plastiko sakabanatuek eragindako kutsaduraren inpaktuen larritasuna.

Zaborren eta plastiko sakabanatuen kutsadurak eragindako inpaktuen edo ondorioen gainean biztanleriak agertzen duen larritasun-mailari dagokionez, larritasun-maila handienaren balorazioa jasotzen dutenak ondorengoak dira: lurraren eta uraren kutsadura (%83,0k dituzte oso larritzat) eta animaliangan duen inpaktua, harrapatuta geratzen direlako (%82,3).

Bi inpaktu horien atzetik, larritasun handienetik txikienera, honako hauek daude:

- Ingurune naturalaren desnaturalizazioa eta degradazioa (%77,4k jotzen dute oso larritzat)
- Hondakin plastikoak gure elikagai-katean sartzea (%71,3k oso larritzat dute), eta azkenik
- Plastikoez eta zaborrek eragiten duten inpaktu bisuala (%60,1ek oso larritzat dute). Arazo nagusienetakotzat hartzen da (bigarrena), baina hari aitortzen zaion larritasun-maila beste gai batzuen baino txikiagoa da.

Oro har, Gipuzkoako ingurumenean sakabanatutako zaborrek eta plastikoez eragindako kutsadurak etorkizunean izango duen inpaktuekiko sentsibilizazioa handia da herritarren artean. %92,4k oso larriak (%59,4) edo nahiko larriak (%33) izango direla uste dute.

Zaborren eta plastiko sakabanatuen kutsadurari aurre egiteko agenteen erantzukizuna.

6

## Responsabilidad de agentes para hacer frente a la contaminación por basuras y plásticos dispersos.

Herritarren arabera, enpresek eta industriek dute erantzukizunik handiena zaborrek eta plastiko sakabanutuek eragindako kutsaduraren aurkako borrokan (%78,6k dio erantzukizun handia dutela).

Enpresa-eta industria-sarearen atzetik, erantzukizun-mailari dagokionez, erakundeen sarea dago:

- %75,6k diote euren herriko udalak erantzukizun handia duela.
- %73,8k Eusko Jaurlaritzak zein Gipuzkoako Foru Aldundiak erantzukizun handia dutela.
- %71,2k Europako Batasuna aipatu dute.
- %70,8k Estatuko Gobernua.

Erantzukizun-maila handienetik txikienera jarraituz, erakundeen ondoren pertsonak agertzen dira:

- Biztanleriaren %65,6k adierazi du norberak erantzukizun handia duela.
- %63,3k biztanleriak, orokorrean, erantzukizun handia duela.

Kasu honetan, nahiz eta alde portzentuala txikia izan, norberaren erantzukizun indibidualak pisu handiagoa du kolektiboak baino. Hala ere, azpimarratu behar da pertsonen jokabideari aitortutako erantzukizunaren gainetik enpresenari eta erakundeenari aitortutakoa dagoela.

Horrek agerian uzten du, berriro ere, zaborren eta plastiko sakabanutuen kutsadurari aurre egiteko erantzukizunari dagokionez, ikuspegi proiektibo bat, erantzukizunaren delegazio bat.

7

## Plastikoaren erabilera murrizteko edo kontrolik gabeko isurketa saihesteko neurriak.

Plastikoaren erabilera murrizteko edo haren isurketa saihesteko garrantzitsuentzat jotako hiru neurriak ondorengoak dira (0tik 10erako eskalan, non =batere ez eta 10=garrantzi handia):

- Produktuen ontziratzea murriztea, 9,09ko batez besteko puntuazio batekin.
- Eremu publikoetako, ibaietako eta naturguneetako isurketa-guneak garbitzea, deifektua saihesteko, 8,80ko batez bestekoarekin.
- Isunak jartzea zaborrak eta plastikoak ingurumenera botatzen dituztenei, 8,42ko batez bestekoarekin.

Hiru alderdi horien atzetik, garrantziaren arabera, ondorengoak daude:

- Informazio gehiago ematea plastikoen kutsadurari eta hura murrizteko moduari buruz, batez besteko 8,25eko puntuazio batekin.
- Paperontzien eta edukiontzien kopurua handitzea, nabarmen baxuagoa den batez besteko batekin: 6,95.
- Plastikozko ontziengatik kobratzea (adb. plastikozko poltsak), 6,95eko batez bestekoarekin.

Azken bi neurri horien batez besteko puntuazioa aztertutako sei neurrien batez besteko puntuazioaren azpitik dago (8,08). Beraz, garrantzitsuak izan arren, herritarrentzat garrantzi gutxien dutenak dira.

8

## Zaborrek eta plastikoek eragindako kutsadura murrizteko ekintza pertsonalak.

Biztanleriaren gehiengo handi batek (%92) adierazi du neurriren bat hartu duela plastikoen kontsumoa murrizteko eta produktu eratorrien kudeaketa egokirako.

Zaborren eta plastiko sakabanatuen kutsadura murrizteko herritarrek gehien egiten dituzten eta etorkizunean egitea aurreikusten duten bi ekintza zehatzak honako hauek dira:

- Plastikozko poltsen erabilera saihestea (herritarren %95,2k egiten du, gaur egun, eta %96k etorkizun hurbilean egitea aurreikusten du).
- Gainpaketatutako produktuen erosketa saihestea (%78,1ek egiten du, gaur egun, eta %88,8k etorkizun hurbilean egingo duela aurreikusten du).

Ekintza horien atzetik daude zaborra botatzen duten pertsoneri noizbait ekintza hori aurpegiaratu izana (%50,5ek egin dute noizbait, eta %61,4k etorkizunean egitea aurreikusten dute).

Azkenik, nabarmenduko genuke:

- %36,3k hondakinen presentziaren berri eman diola udalari, eta %68,3k etorkizun hurbilean egingo duela aurreikusten duela.
- %35,4k mikroplastikoak dituzten produktuak erostea ekiditen duela, gaur egun (adb. hortzetako pastak, produktu kosmetikoak); eta %70ek etorkizun hurbilean egingo duela aurreikusten duela.
- %22,2k adierazi du ibaietan edo kostaldean hondakinak jasotzeko jardueraren batean parte hartu duela, modu boluntarioan; %55,9k etorkizun hurbilean egingo duela aurreikusten du.

Azken hiru ekintza horietan dago alderik handiena gaur egun egiten dituzten pertsonen eta etorkizun hurbilean egitea aurreikusten dutenen artean. Beraz, joera handiagoa dago horrelako ekintzak aurrera eramateko.

9

## Zaborra modu desegokian biltegiatzearen arazoari aurre egiteko ahaleginean gehiago ez laguntzeko arrazoi pertsonalak

Horretarako berariaz prestatuta dauden lekuetatik kanpo botatako zaborraren arazoari aurre egiteko ahaleginean gehiago ez laguntzeko herritarrek dituzten arazoaren artean, ondorengoak nabarmenduko genituzke:

- %23,4k adierazi dute udalak edo dagokien organismoek dutela ardura nagusia eta hori dela arrazoia. Honela izendatu genezake talde hori: "persona proiektiboak, erantzukizun guztia tokiko administrazioarengan uzten dutenak".
- %23,3k baieztatu dute, normalean, horretarako prestatutako lekuetan uzten dutela beti zaborra, eta beraz, ez dutela arrazoirik adierazten den arazoari neurri handiagoan aurre egiteko. Honela izendatu genezake talde hori: "euren jokabidea perfektutzat duten pertsonak, neurri batean autokonplazentzia bat dutenak eta hobetzeko jarrerarik gabeak".
- %22,2k diote euren arrazoi nagusia ezjakintasuna dela, zer egin daitekeen ez jakitea. Honela izendatu genezake talde hori: "Egin dezaketen ekarpenaren berri ez daukaten pertsonak". Teorian, talde oso harkorra edo iragazkorra izan beharko litzateke zaborrak behar bezala biltegiatzearekin lotutako informazioa zabaltzerako orduan.



- %14,7k ez dute inolako arazorik onartzeko euren arrazoi nagusia erosotasuna dela. Honela izendatu genezake talde hori: “Euren jokabidean eroso dauden pertsonak”.
- %4,5ek uste dute egiten dutenak ez duela eragin handirik izango. “Beren ekintzaren eraginkortasunik ezaren pertzepzioak desanimatutako pertsonak”.
- %0,6k bakarrik adierazi dute gaiak ez diela ardurarik eragiten: “arduragabeko pertsonak”.
- %0,4k argi eta garbi adierazi dute maila pertsonalean ezin dutela ezer egin. Euren burua “eragile aktibo”tzat ez duten pertsonak dira. Euren burua baztertu egiten dute, ez dutelako arazoan eragiteko gai ikusten.
- % 9,3k beste gai batzuk aipatzen dituzte.

Jakina, arazo horiek guztiak oztopoak edo galgak dira, sakabanatutako zaborraren arazoa gehiago ez murrizteko. Horrek ez du esan nahi, lehen ikusi dugun bezala, biztanleria halako neurriak hartzen ari ez denik.

10

## Informazio- eta sentsibilizazio-beharra eta komunikazio-kanalen eraginkortasuna.

Biztanleriaren %74,5ek uste du oso beharrezkoa dela herritarrak informatzea eta sentsibilizatzea, hondakinak horretarako berriaz prestatutako lekuetan utz ditzaten (edukiontzia, paperontzi, Garbigune eta abarretan). Guztira, biztanleriaren %97,8k kontsideratzen du, intentsitate ezberdinekin, beharrezkoa dela jarduera hori aurrera eramatea. Beraz, herritarrak informatzeko eta sentsibilizatzekeo behar handia dago.

Eraginkortasun handia aitortzen zaie ikastetxeei eta hezkuntza zentroeiei, zaborrak beren lekuetatik kanpo utzi ez ditzaten herritarrak informatu eta sentsibilizatzeari dagokionez (jarduera hori garatzeko beharra planteatzen duten herritarren %72,7k adierazi dute). Arlo sozialeko beste gai batzuekin gertatzen den bezala, itxaropen eta erantzukizun handia jartzen da hezkuntza-jarduerarengan. Irakaskuntza-zentroen atzetik, eraginkortasun-mailari dagokionez, familia bera dago (kolektibo horren %60,9k oso garrantzitsutzat dauka), baita lagunak/ezagunak (%54,7) ere. Beraz, lehen mailako eta zuzeneko sozializazioko hiru talde nagusiei aitortzen zaie eraginkortasunik handiena.

Ondoren, eraginkortasun-mailari dagokionez, ohiko komunikabideak eta IKTein lotutakoak daude. Eraginkortasun-mailaren pertzepzioen araberrako hurrenkeran, telebista dago lehen tokian (%49,3k oso eraginkor gisa baloratzen dute); Internet, sare sozialak (%47,2) eta irratia (%36,0) ondoren eta tokiko egunkari eta aldizkariak, azkenik.

Eraginkortasun-mailari dagokionez, azken tokietan daude solasaldiak, hitzaldiak eta mahai-inguruak (%25,7k uste dute oso eraginkorrak direla) eta etxeko postontziko informazioa (%18,6).

Zabor sakabanatuen arazoari buruzko informazioaren eta sentsibilizazioaren ikuspegitik, oso garrantzitsua iruditzen zaigu proiektio pertsonaleko egoerak gainditzeko estrategiak garatzea ("norberaren ardurako gaiak ingurukoena direla pentsatzea: udalarenak, enpresenak, bizilagunenak, beste gizarte-eragile batzuenak..."). Izan ere, honelako proiektio-egoerak saihesteko mekanismoak izaten dira, norberaren hobekuntzarako ekintzara pasatzeko energia nahikoa lortzea eta hondakinen biltegiatze desagokiaren eta ingurumenean sakabanatutako zaborraren arazoari jarraitasunez aurre egitea eragozten dutenak.

## 11

### **Komunikazio-estrategiarako posizionamendua.**

Planteatzen ditugun komunikazio-estrategien helburu nagusia da Gipuzkoako herritarren artean sentsibilizazio pertsonala sortzea, kontzientzia har dezaten eta ekintza zibikora pasa daitezen, asebetetze pertsonala lortuz eta zabor sakabanatuen arazoa eta horrek ingurumenean dituen ondorio larriak murrizten lagunduz. Hori guztia, proiektio-mekanismoa gaindituz.

Komunikazio-estrategiaren bidez, "kezka-sentsibilizaziotik" "okupazio-sentsibilizaziora" pasa nahi da, zaborren sakabanaketak duen inpaktu negatiboari buruz dagoen kontzientziak ardurara eta konpromiso-maila handiagoa eragin dezan, asebetetze-pertsonala dakarten ekintza edo portaera egokiak bultzatuz.

Alde horretatik, erantzukizuna eta gogobetetasuna modu orekatuan transmitituko dituen komunikazio emozionala garatu behar da. Aurrekoarekin lotuta, zabor sakabanatuak eragindako kutsaduraren ondorio negatiboak ez lirateke gehiegi estimulatu behar... (biztanleriaren zati handi batek barneratu baitu hori, dagoeneko), izan ere, intsentsibilizazioa ere eragin dezakete, zaborrak egoki biltegiatzearen garrantziarekin lotuta.